



2014 EKONOMIA SOZIALEKO ESTATISTIKA ETA 2015eko AURRERAPENA

Apirila 2016

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo
Espezifikoa Ikertalderekin lankidetzan*

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak, Ikertalderekin elkarlanean, Gizarte Ekonomia Estatistikaren hamaikagarren edizioa egin du. 1994-2014 aldian zehar, Gizarte Ekonomia sektorearen bilakaeraren ezaugarri nagusiak jasotzen ditu estatistika-eragiketa honek.

Estatistika-eragiketa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomia-sarearen testuinguruan Gizarte Ekonomiaren neurriak eta ezaugarriak zehaztea, eta aurreko urteen aldean zer-nolako bilakaera izan duen adieraztea.

Dokumentu honek Gizarte Ekonomiaren magnitude estatistiko nagusiak aurkezten ditu, lau ataletan.

- Lehen atalean, Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoek (GEFK) 2012-2014 biurtekoan izandako bilakaera ikus daiteke. Kategoria horretan, kooperatibak, lan-sozietate anonimoak (LSA) eta lan-sozietate mugatuak (LSM) daude.

Establezimendu-kopuruaren eta enpleguaren bilakaeran jartzen da arreta, baita magnitude ekonomiko nagusien aldaketetan ere (sortutako BEGd-a, esportazioen portaera, produktibitate-ratioak, etab.). Aldagai horiek sektorearen, lurraldearen eta forma juridikoaren arabera aztertzen dira.

2014ko oraingo edizio honetan, Eskualde eremuan Gizarte Ekonomiaren egoeraren ikuspegia hartzen du barnean lurraldearen arabeko analisiak lehenengoz. Parametro sozioekonomiko nabarmenenak hartzen dira kontuan (enplegua, establezimenduak, fakturazioa, esportazioak, soldatak, BEGd eta itxurazko produktibitatea) EAEko¹ lurralde errealitatea osatzen duten 11 eskualde handien arabera bananduta.

- Bigarren atalak Gizarte Ekonomia Forma Klasikoen 2015eko aurrerapenaren emaitzak aurkezten ditu, fakturazioari eta enpleguari dagokionez. Horri esker, kooperatibek eta lan-sozietateek etorkizunik hurbilean zer portaera izan dezaketen aurreikus daiteke.
- Hirugarren atalean, Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresek azken urteetan krisi ekonomikoari aurre egiteko edota beren antolaketa- eta estrategia-kudeaketa hobetzeko estrategiak eta tresnak aztertzen dira.

2014 edizioaren berritasun gisa, berrikuntzaren eremuarekin eta horrek enplegu osoan eta, bereziki, enplegu kualifikatuan duen inpaktuarekin lotutako analisisia egin da.

¹ Lan Merkatuaren Zentsuan ezarritako 11 eskualde handitako sailkapena erabiltzen da: Gasteiz, Ayala, Eskuinaldea, Bilbo, Ezkerraldea, Bizkaiko-kosta, Durangaldea, Donostialdea, Tolosa-Goierri, Deba Goiena eta Deba behea.

- Laugarren eta azken atalean Gizarte Ekonomia Forma Berrien (GEFB) analisiari heltzen zaio. Oraingo edizioan, erabilitako metodologia berriari esker², garatutako analisiaren egiturak GEFKei buruzko atalean garatutakoaren antza du. Establezimendu kopuruaren eta GEFBak osatzen dituzten erakunde askotarikoek (fundazioak, onura publikoko elkarteak, enplegu-zentro bereziak, gizarteratze-enpresak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak – ENS-, arrantzale-kofradiak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak-BGAE) sortutako enpleguaren kuantifikazioa hartzen du ardatz hurbilketa honek. Baita, 2014 ekitaldian erakunde multzo horiek adierazten dituzten makromagnitude ekonomiko nagusiei ekiten zaie ere: sortutako BEG, Fakturazio mailak, diru-laguntzak, egindako inbertsio material eta immaterialak, etab.

Dokumentuaren zati handienak Gizarte Ekonomiaren 2014ko Estatistikaren eta 2015eko Aurrerapenaren emaitza nagusiei buruzko azterketa sintetikoa egiten du. Eranskin estatistikoak aukera ematen du eragiketaren emaitza estatistikoetan zehatz-mehatz sakontzeko.

² 2014 edizioan Era Berrien parametro sozioekonomiko nagusiei buruzko informazioa biltzeko galdeketa zehatza egin da eta musu zentssalean bidali da (fundazioak, onura publikoko elkarteak, enplegu-zentro bereziak, gizarteratze-enpresak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, arrantzale-kofradiak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak).



EMAITZA NAGUSIAK


I. GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIKOAK (GEFK), 2014

2012tik 2014ra bitartean Gizarte Ekonomiaren GEFKen enpleguak jaisten jarraitzen du, EAEko ekonomian pisua galtzen duen sektorea. Bilakaera hau industria enpleguaren dinamikarekin lotuta dago.

2012tik 2014ra bitartean, Gizarte Ekonomiaren Kooperatibek eta Lan Sozietateek sortutako enpleguak, 2008an hasitako joera beherakorrarekin jarraitzen du. Hala ere, enpleguaren jaitsiera-erritmoa murriztu da azken bi urteetan.

2014an, Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoek sortutako lanpostuak 54.582 ziren. Aurreko hamarkadaren erdialdean hasitako etengabeko jaitsiera-joera mantentzen da. 2014ko enplegu maila 2006an erregistratutako puntu gorenetik aldentzen da; urte horretan, 63.480 pertsonari eman zien lana Gizarte Ekonomiak.

EAEko GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2014



Hala ere, azken urteetako enpleguaren beherakada-ildoak leundu da jaitsiera erritmoen murrizketa dela eta. 2012tik 2014ra bitartean, GEFKen enplegua % 2,2 uzurtu da, 2006-2012 aldiko hondatze-ildo azkarrarekin apurtuz. Horrela, 2006tik 2008ra bitartean % 1,4ko jaitsieraren ondoren, 2008-2010 bitartean enplegua % 4,3 murriztu zen, eta 2010etik 2012ra bitartean murrizketa hori % 6,9 izan zen³.

Oro har, sektoreak bere enpleguaren % 14 galdu du 2006tik 2014ra bitartean; izan ere, lanpostu-kopuruak 2000 urteko 54.259 enpleguak gainditu ditu. Hortaz, azken urteetan, oparoaldi ekonomikoan sortutako enplegu garbiaren zati handi bat desagertzen da. 2006tik 2014ra bitartean, suntsitutako –edo merkataritza-sozietateetara joandako– enplegu garbiaren magnitudea 8.898

³ Hala ere, GEFKen enpleguaren jaitsiera osoa ez dela lanpostuen galera zorrotzarekin lotzen aipatu behar da. Gizarte Ekonomiaren Estatistikaren espezifikotasunak, enpleguaren dinamikari buruzko emaitzen analisia enpresen berezko bilakaerarekin bat ez etortzea ekartzen du (itxierak, irekitzeak, lanpostuak gehitzea edo gutxitzea, etab.) baizik eta ikerketaren esparru formalek enpresen irtetze eta sartze prozesuak islatzea. Zentzu honetan, aurreko edizioetatik lan sozietatetik merkataritza sozietate izatera pasatzeko joera antzematen da, Gizarte Ekonomiaren enpleguaren bolumenari eragiten dion prozesua.

lanpostukoa da; alegia, 1994-2006 oparoaldian GEFKek sortutako lanpostu garbien % 41,2 (2000-2006 bitartean sortutakoen % 96,5).

Kooperatiba eremuko entseinaren enpresa-likidazioarekin eta LSA batzuen itxiera nabarmenarekin lotzen da GEFKen enplegu osoan antzemandako murrizketa, neurri handi batean.

Gipuzkoako Kooperatiba industrial entseinaren likidazioak markatu du⁴ enpleguaren joera beherakorra 2014 ekitaldian zehar, bai sektore bai lurralde eremuetan. Ondorio hori kontuan hartu ez bagenu, Gizarte Ekonomiak adierazitako enplegu maila osoa zifra positiboak erakus zitzakeen, % 1 inguruko hazkundera kokatuz. Maila hau positiboan nabarmenduko zen 2012tik 2014ra (%-0,7) bitartean, Euskadiko Autonomi Erkidegoko (EAE) biztanle okupatuengan erregistratutako beherapen tasa arinarekin alderatuz.

Aurrerago aipatzen den legez, Fagor Etxetresnen bilakaerak arazo zabalagoa islatzen du GEFKen testuinguruan, enplegu industrialaren indar galerarekin lotuta. Dinamika honetan beste itxiera batzuk eta/edo Gizarte Ekonomiaren eremu industrialeko lanpostu murrizketa prozesuak gertatzen dira; horregatik, oro har, beheranzko-ildo orokorrak enpleguaren bilakaera negatiboa islatzen du GEFKetan.

Joera hauek Gizarte Ekonomiaren Forma Klasikoek euskal ekonomia osoan pisua galtzen jarraitzea eragiten dute.

2006tik geroztik, Gizarte Ekonomiaren enpleguaren bilakaera ez da euskal ekonomiarena bezain aldekoa izan, oro har. 2006tik 2008ra bitartean, krisiaren hasierako uneetan, Gizarte Ekonomia enpleguak galtzen hasi zen jada (-% 1,4); bitartean, aldiz, euskal ekonomia gorantz mantentzen zen, okupazio zifren % 2,7ko hazkundearekin.

Ondoren, 2008-2010 biurtekoan, enplegu galerak orokortu eta euskal ekonomia osora hedatzen ziren. Hala ere, jaitsiera arinki altuagoa zen Gizarte Ekonomiaren eremuan, -% 4,3ko enplegu jaitsierarekin, EAEn okupazio mailak erregistratutako -% 3,9a baino pixka bat altuagoa. 2010etik 2012ra bitartean Gizarte Ekonomiaren enpleguaren jaitsiera alderakorra nabarmentzen zen, -% 6,9ko jaitsiera gogorrarekin, EAEko biztanle okupatuen -% 4,7ko jaitsiera gainditzen zuena.


2012-2014 biurtekoan, enplegu galeraren erritmoa moteltzen da, -% 2,2an kokatu arte. Baina jaitsiera honek era adierazgarrian gainditzen jarraitzen du euskal ekonomian erregistratutako %0,7ko lanpostu galera.

⁴ Fagor Electrodomesticos kooperatibak konkurtso-prozesuan sartu zen 2013ko azaroaren 19an. 2014 urtearen zehar, Fagor Electrodomesticos-ek ez du fakturaziorik erregistratu, eta langileak, urtarilean hasi zen EEE prozesu batera lotuta geratu ziren. Hori dela eta, 2014ko Ekonomia Sozialeko Estatistikak ez ditu ordura arte Fagor Electrodomesticos-ek sortutako parametro sozioekonomikoak kontuan hartu. Kooperatiba honek, 2012ko Ekonomia Sozialeko Estatistikan jasotzen ziren 1.800 enplegu zituen.



Bilakaera honek Gizarte Ekonomiaren enpleguak Euskal Ekonomian pisu erlatiboa galtzea eragin du. Gizarte Ekonomiak, 2002an EAEko ekonomiaren enpleguaren %6,8 hartzera heldu zena, ekarpen hori murriztuta ikusiko du 2004tik 2006ra (% 6,6), 2008tik 2010era (% 6,3), 2012an (% 6,2) eta 2014an (% 6,1).


GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAEko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 1994-2014 (% EAEko enpleguen kopuru osoarekiko)



Ekonomia lokaleko GEFKen pisu erlatiboa oso desberdina da EAEko lurraldearen arabera. Eskualde eremuan, Gizarte Ekonomiaren enpleguak Deba Goienean duen pisua nabarmentzen da, enpleguaren % 40,8 enpresa-ehun horretara lotuta baitaude. Maila Horietatik urrun badaude ere, Tolosa-Goierri eta Durangaldeako eskualdeak GEFKetako enpleguaren presentzia sendoagatik nabarmentzen dira, eskualdeko enpleguaren % 11,0 eta % 10,1 biltzen baitute.

Deba Behean eta Bizkaiko Kostaldean GEFKen pisua % 7 eta %8 da, eta %5tik gertu kokatzen dira Eskuinaldean eta Donostialdean. Ayala, Bilbo eta Ezkerraldeko eskualdeetan GEFKken pisu erlatiboa murriztu egiten da, % 3 inguru kokatuz.

EAEko EKONOMIAN GIZARTE EKONOMIAKO ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA ESKUALDEEN ARABERA (% EAEko guztizko enpleguaren gainean).




Enplegu industrialaren jaitsiera adierazgarria (-% 7,5) oso bestelakoa da zerbitzu sektorearen enpleguaren berreskuratzearekiko (+% 3,7).

Enplegu sektorialaren bilakaerari erreparatuta, daturik negatiboena, 2012tik 2014ra bitartean industria sektoreko enpleguan % 7,5eko jaitsiera da. Tasa honek aurreko 2010-2012 biurtekoan gertatutako jaitsiera bikoizten du (-% 3). 2012tik 2014ra bitartean ikusitako industria-enplegu galera krisiaren hasierako urteetako bezain altua ez bada ere (2008tik 2010era bitartean % 11,4 murrizketa eman zen), gaurko jaitsierak krisi aurretik izandako industria-enplegu galera gogorarazten du (hau da, 2006tik 2008ra bitartean erregistratutako % 7,5).

Fagor etxetresnak enpresaren itxiera indargabetzekotan, 2012tik 2014ra bitarteko industria-enplegu galera moteldu egin eta -% 0,5 murriztu litzatekeen; gertaera horrek enplegu industrialaren jaitsiera-prozesuan freno nabaria aurrera zezakeen (enplegu industrialeko galeran emandako jaitsierarekin - 2008-2010eko -% 11,4tik 2010-2012ko -% 3ra- bat etorritz). Izan ere, bilakaera-alaketaren ildo hori da GEFKen industria sektoreak gaur bizi duen errealtatea, neurri handi batean 2015eko enplegu industrialaren bilakaeraren gaineko aurreikuspenen bidez argitzen dena. Aurreikuspen hauek, 2014-2015 aldirako, enplegu mailetan % 2,2ko hazkundera aurreratzen dute.

Enplegu industrialetik aldenduz, 2010-2012 biurtekoko Gizarte Ekonomiaren hirugarren sektoreko enpleguan bizi izandako goranzko joeraren hausturaren ondoren, lanpostu kopuruan % 10,3ko jaitsiera izanda, 2012tik 2014ra bitartean zerbitzuetako enplegua berriro ere igotzen da, % 3,7 haziz. Tasa honek 2008tik 2010era bitartean GEFKetan bizi izandako % 2,7ko igoera gainditzen du; baina krisiaren aurreko aldiko hazkunde erritmotik azpitik kokatzen da oraindik. Horrela, gogoratu behar da 2004tik 2008ra bitarteko biurtekoan hirugarren sektoreko enpleguan izandako igoera, bi urtez behingo hazkunde-erritmoa % 5etik gora kokatzen zela.

GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA (Hazkunde-tasak 2010-2012 eta 2012-2014 biurtekoetan)



Zifra absolutuetan, 2014an hirugarren sektoreko enplegua 29.005 lanpostuetara igo zen, GEFKen enpleguen erdia (% 53,1) baino gehiago biltzen duena. Hori eman arren, zifra hauek 2010ean erregistratutako 31.171 enpleguetatik urrun geratzen dira oraindik. 2010-2014 lau urtekoaren multzorako 2.166 enpleguen suntsiketa garbiaren oinordetza uzten dute oraindik zerbitzu-sektorean.


Bestalde, industria sektorean erregistratutako portaera negatiboak, azkenengo biurtekoan % 7,5eko jaitsierarekin, aldi horretan erregistratutako enpresa garrantzitsuen itxierek baldintzatuta, industria sektorea 23.807 lanposturekin kokatzen du, GEFK guztien % 43,6a suposatuz. Proportzio hau krisi aurreko urteetan erregistratutako mailarekin alderatuz nabarmena da, non enplegu industrialaren ekarpenak enpleguaren % 51a suposatzen baitzuen 2006an 32.350 lanpostuetara iritsiz.

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. 2012 eta 2014
(zifra absolutuak eta %bertikalak)

	2012		2014	
	z.a.	%ber.	z.a.	%ber.
Lehen sektorea	117	0,2	171	0,3
Industria	25.727	46,1	23.807	43,6
Eraikuntza	2.000	3,6	1.599	2,9
Zerbitzuak	27.966	50,1	29.005	53,1
GUZTIRA	55.809	100,0	54.582	100,0

Euskal ekonomiaren testuinguru orokorrean, Gizarte Ekonomiaren hirugarren sektoreko enpleguaren garrantzi erlatiboak epe luzean mantentzeko joera du. Horrela, 2010etik 2014ra bitartean % 4,9 tik % 4,5era jaitsi ondoren, zerbitzu sektorearen parte-hartzea 2006koaren antzeko mailan, % 4,5ean egonkortzen da.

GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa). 2010-2014



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat. Urteko okupazioaren batez bestekoa


Bere aldetik, 2012-2014 biurtekoan bizi izandako dinamika industrial negatiboa euskal industriaren esparru orokorrean ikusitakoaren antzekoa da, non aldi honetan enplegua % 7,4 jaitsi baitzen. Dinamika horren ondorioz, industria enpleguan GEFKek duten partaidetza (% 12,1), 2012koa (% 12,0) baino hamarren bat altuagoa da, eta hiru hamarren altuagoa 2010eko ehunekoarekin laderatuz (% 11,8).

Euskadiko BPG industrialean Gizarte Ekonomiako enpresa industrialen partaidetza baino altuagoa da pisu erlatibo hori (% 9,3 2014an eta % 9,9 2012an). Modu honetan, agerian uzten da Gizarte Ekonomiak produktu unitate bakoitzeko enplegua sortzeko gaitasun handiagoa duela euskal industria-ehunak baino.

Bestalde, GEFKen eraikuntza sektorea, 2012tik 2014ra bitartean izandako jaitsiera nabarmenagatik karakterizatzen da, % 20,1ean kokatua. 2014an. EAE okupazioarekiko enplegu sektorialari egiten dion ekarpen maila mantentzen du (% 3,4 2014an eta % 3,5 2012an), EAEko eremu orokorreko okupazioaren jaitsiera antzekoa baita (-% 18,1).

Enpleguaren banaketa sektorialari dagokionez, azkenik, Gizarte Ekonomiako Tertziarizazio prozesua sendotuz doan errealitate bezala nabaritzen da, 2012ko % 50,1etik 2014ko % 53,1eko zerbitzu sektorearen pisu sektorialaren gehikuntzarekin. Hala ere, nabarmengarria da, sozietate laboralen eta kooperatiba eremuan industria enpleguak duen pisu erlatibo handia (% 43,6). Euskal ekonomia osoan, enplegu industrialaren pisua ia erdian kokatzen da (% 22).

ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN 2014. (%bertikalak, eremu bakoitzeko enplegu osoari dagokionez)



Oharra: Konparazio datuak Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik (BJA) hartutakoak dira. Eustat 2014. urteko okupazioaren batez bestekoa.

Gizarte ekonomia osatzen duten forma juridiko askotarikoei erreparatuta, 2012-2014 aldiaren enplegu galera bi faktore nagusik baldintzatzen dute:

- LSAen enplegu mailan ikusitako jaitsiera jarraitu eta garrantzitsua (-% 20,7); horrez gain, haien establezimendu kopurua murriztea ikusten dute (-% 14,2).
- Biurteko honetan lankide enplegu mailan izandako atzerapena (-% 1,4) 2010-2012 aldian ikusitakoa baino -% 0,3 altuagoa.

Enpleguan izandako bilakaera negatiboa arrazoitzeko faktore nagusi bat, Lan sozietate anonimoen enpleguaren beheranzko joerarekin bat dator, aurreko urteetan egiaztatuta jada. Kasu honetan, 2012-2014 biurtekoko establezimenduen % 14,2ko galera, enpleguaren % 20,7ko jaitsiera batekin amaitzen da. Enpleguaren bilakaera negatiboak aurkezten duen Gizarte ekonomiaren forma juridikoetan biurteko honetan sortutako % 55,7 enplegu garbien galera, LSAek izandako enplegu murrizketak azaltzen du.

LSAetako enpleguan izandako jaitsiera, 2010-2012 biurtekoan bizi izandako dinamikarekin lotuta moteltzen da, jaitsiera erritmoa % 45etik gainera kokatzen zen aldia. Baina dinamika berriak, Gizarte Ekonomia osoan formula sozietarioaren adierazgarritasun galerarako joera argia nabarmentzen du. Horrela, 2010ean lana zutenek GEFKen % 14,3 suposatzen bazuten ere, 2012an portzentaje hau % 7,2ra jaitsi zen, 2014an % 5,8an kokatzeko.

2012-2014ean GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2012-2014 (zifra absolutuak,% bertikalak)

	2012		2014		%Δ14/12 (1)
	z.a.	%ber.	z.a.	%ber.	
Kooperatibak	47.981	86,0	47.322	86,7	-1,4
LS motakoak	7.828	14,0	7.259	13,3	-7,3
LSA	4.005	7,2	3.177	5,8	-20,7
LSM	3.823	6,8	4.082	7,5	6,8
GUZTIRA	55.809	100,0	54.582	100,0	-2,2

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundea, ehunekotan adierazita.

Kooperatiba sektoreak, bestalde, enplegu bilakaera negatiboarekin Gizarte Ekonomiako sozietate formen esparruan galdutako enplegu garbien % 44,3a jasotzen du. Hala ere, SLAekin alderatuz, kooperatiba establezimenduen kopuruan hazkundea ikusten da (+% 1,8) eta, bereziki, termino erlatiboetan nabarmen txikiagoak diren enpleguetan jaitsiera. (-% 1,4 LSAetako -% 20,7 aurrean). Nahiz eta kooperatibetako enplegua 2010-2012 biurtekokoa baino murriztagoa izan (-% 0,3), 2012-2014 bitarteko sektore honen dinamika baldintzatua dago bere enpresa nagusiaren itxieragatik, gainerako enpresen berrskuratzeko joera ezkutatzeko duen faktorea.

Kontrapuntu positiboa Erantzukizun mugatuko Lan sozietateak ipintzen dute, 2010-2014an enpleguan bizi izandako atzerakadari buelta ematea lortzen dutelako (-% 12,4), berriro 4.000 enpleguen gainera kokatzea lortuz. (4.082 2014an). Establezimendu berrien irekitzeko dinamismo sendoak (+% 7,8) enpleguaren % 6,8ko hazkundeak dakar emaitza bezala. 2014an LSMen establezimenduen parkeak (664 establezimendu) LSA-en parkea hirukoizten du (230 establezimendu).

Epe luzerako ikuspegitik, GEFKetan 2008-2014 bitartean 8.033 enpleguren galerak, dinamika negatibo orokorra erakusten du, non hala ere, Jaitsieraren nagusia LSArekin lotzen baita. Hauek krisian zehar ikusitako enplegu murriztapenaren % 53,2 jasotzen dute, jada 2006tik aurrera agertzen den krisia. Dena dela, aldiaren jaitsieraren % 37,8 kooperatiba sistemari dagokio. LSMek enplegu galeren gainerako % 9 jasotzen dute.

Enpleguaren jaitsiera Bazkide taldearekin lotzen da neurri handi batean. Soldatapeko taldeak, noizbehinkakoak eta neurri handi batean mugagabeak, zifrak hobetzen ditu.

Enpleguaren bilakaera enplegua xedatuta geratzen den kontratuzko erlazio motaren arabera ondo bereizitako dinamikek markatzen dute. Horrela, Gizarte Ekonomiako zifretan izandako jaitsiera orokorra, sozietatearen enpleguan bizi izandako jaitsiera nabarmenari erantsten zaio. Hau 2012-2014 biurtekoan % 7,2 murrizten da, LSAetako sozietate enpleguaren -% 28,3ra iritsiz (LSMetako bazkideetan % 1eko gorakadatik aldenduz). Nahiz eta jaitsiera Kooperatiba sektorean txikiagoa izan (-% 6,3), krisiaren hasieratik erregistratutako jaitsierarik sendoena izanik, gainera, 2010etik 2012ra bitartean erregistratutako hobekuntzarekin amaitzen du.

LSAren dinamika negatiboa soldatapeko enpleguan nabaritzen da, enplegu mota honetako % 10,6ko galerarekin. Kasu honetan alderaketa deigarria da sozietateen beste forma batzuetan soldatapeko enpleguaren handiagotzeagatik, bai Kooperatiben (% 11,3) kasuan, eta baita LSMetan ere (% 17,6). Oro har, soldatapeko enplegua % 9,6a handitzen da 2012tik 2014ra bitartean.

Kooperatiben eremuan soldatapeko taldearen gorakada kontratu finkodunen eta denboraldikoa dutenen artean ikusten da, antzeko hazkunde tasarekin (% 11,4 eta % 11,2, hurrenez hurren). Gizarte Ekonomia forma honetan, gertaera honek 2012-2014 bitarteko erabateko enpleguaren jaitsiera leuntzera laguntzen du (-% 1,4).

Berdin gertatzen da LSMetan, sozietate enpleguaren jaitsiera konpentsatzen duen soldatapeko enpleguaren hazkundearekin, 2012-2014 bitartean % 6,8ko enplegu igoerara lagunduz. Hala ere, kasu honetan, soldatapeko kontratazioaren igoera forma mugagabeetan sostengatzen da, % 41,4ko igoerarekin, denboraldiko kontratazioaren % 11,2aren jaitsierarekin kontrastatuz.

Kooperatibetan eta LSMetan soldatapeko enpleguaren berreskuratzeak, 2008-2012 bitartean ikusitakoari buruz, joera aldaketa argia ekartzen du, jaitsiera oso deigarriekin, berreskuratze prozesuak konpentsatzen lortzen duen bitartean. Hau nabaria da bereziki LSMetan, 2014an 2008ko soldatapeko enplegua baino % 30,9 baxuagoa izanik (-% 51,3 LSAetan). Kooperatiba sektoreko enplegu mota honen berreskuratzea 2008ko egoerara hurbiltzen da, kontratu mugagabea duten pertsonak % 2,5a gutxiago izanik.

**ENPLEGU-BANAKETA FORMA JURIDIKOAREN ETA KONTRATU-MOTAREN ARABERA EAE-KO
GIZARTE EKONOMIAN, 2008-2014 (kopuru absolutuak)**

	Bazkideak	Soldatapekoak	Finkoak	Aldi baterakoak
KOOP.ELK.				
2008	34.710	15.649	6.534	9.115
2010	33.895	14.197	8.256	5.941
2012	34.241	13.703	6.251	7.451
2014	32.071	15.251	6.965	8.286
Lan-sozietateak				
2008	7.159	5.098	3.364	1.734
2010	5.471	6.353	3.985	2.368
2012	5.001	2.865	1.767	1.098
2014	4.351	2.908	1.965	943
Lan-sozietate anonimoak				
2008	4.441	3.010	2.288	722
2010	2.592	4.828	3.060	1.768
2012	2.387	1.638	1.096	542
2014	1.712	1.465	1.016	449
Lan-sozietate mugatuak				
2008	2.718	2.088	1.076	1.012
2010	2.879	1.525	925	600
2012	2.614	1.227	671	556
2014	2.639	1.443	949	494
GUZTIRA				
2008	41.869	20.747	9.898	10.849
2010	39.366	20.550	12.241	8.309
2012	39.242	16.568	8.018	8.549
2014	36.422	18.159	8.930	9.229

Gipuzkoak, Gizarte ekonomiako lurralderik adierazgarriena historikoki, enpleguaren galerarik handiena erregistratzen du zifra absolutuetan, % 4,1eko jaitsierarekin.


Guztiaren % 50arekin, Gipuzkoa da 2014an EAEn GEFKetako enpleguen zati handiena biltzen duen lurraldea. Bizkaiko enpleguak % 39 hartzen du eta gainerako % 10,2 Arabak jasoz.

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA. 2012-2014



Biztanle okupatuengan Gizarte Ekonomiak pisu handiena duen lurralde moduan nabarmentzen da Gipuzkoa, % 9,2 batekin. Bizkaian, ehuneko hau % 4,7koa da. Araban, bestalde, Gizarte Ekonomiak % 4,1a ematen die Arabako biztanle okupatuei.

GIZARTE EKONOMIAK EAEko EKONOMIAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA (Enpleguaren pisu erlatiboa Lurralde Historikoaren arabera). 2012-2014



Konparaziorako Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2014

Gipuzkoako GEFKen enpleguak joera negatiboa aurkezten du 2012-2014 bitartean, enplegu maila % 4,1 jaisterakoan. Guztira urteko 27.699 enplegu eta establezimenduen kopurua % 1,1 hazi arren, EAEn GEFKen enplegurako Gipuzkoako ekarpena 0,9 puntu portzentajetan txikiagotzen da (% 51,7 2012tik % 50,8 2014ra). Gipuzkoak guztira 1.177 enplegu galtzen ditu zifra absolutuetan, Gipuzkoako biztanle okupatuei Gizarte Ekonomiaren ekarpenak puntu erdi portzentajetan murriztepeena ekarriz. (2012ko % 9,7tik 2014ko % 9,2ra).

2012-2014 bitartean establezimenduen kopurua % 5,8an hazi arren, baldintza erlatiboetan Arabak enplegu zifretan Gipuzkoak baino jaitsiera handiagoa erregistratzen du (-% 4,7). 2012 eta 2014 bitartean guztira 275 enplegu garbi galtzen ditu. EAEko GEFKko enplegu bere partaidetza % 10,5 batetik % 10,2 batera murrizten da.

GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAREN LURRALDE BILAKAERA
(Enpleguaren datu absolutuak eta urtetik urteroko aldaketak Lurralde Historikoen arabera). 2008-2014


	Enplegua 2008-2014				Biurteko enpleguaren bilakaera 2008-2014		
	2008	2010	2012	2014	Δ08-10	Δ10-12	Δ12-14
Araba	6.467	6.599	5.846	5.571	2	-11,4	-4,7
Bizkaia	24.454	24.186	21.087	21.312	-1,1	-12,8	1,1
Gipuzkoa	31.694	29.130	28.876	27.699	-8,1	-0,9	-4,1
GUZTIRA	62.615	59.915	55.809	54.582	-4,3	-6,9	-2,2

Bilakaera positiboena Bizkaiarena da. Establezimendu kopuruan hazkunde txikiena duen lurraldea izan arren (+% 0,6), enplegu gaitan aurrera joaten lortzen duen bakarra da (+% 1,1). Bizkaiak lurraldeko biztanle okupatuen Gizarte Ekonomiako enplegu proportzioa 0,2 puntu portzentajetan areagotzen du (% 4,5etik % 4,7ra) eta 1,2 puntutan Gizarte Ekonomiaren esparruan sortutako enpleguan parte-hartzea (% 37,8tik % 39,0ra).


Datu nabarmena da Gipuzkoaren espezializazio industrial. Elementu hau agerian jartzen da Gizarte Ekonomiak lurraldeko okupazio industrialean duen pisuaren bidez. Modu honetan, 14.938 enplegu industrialetan sostengatuta, Gipuzkoako bost enplegu industrial bakoitzeko bat Gizarte Ekonomiarekin zuzen lotzen dela egiaztatzen da (% 20,6, Bizkaiko % 8 eta Arabako %5aren aurrean). Espezializazio hau eremu kooperatibora lotzen da neurri handi batean, non GEFKen industria enpleguen % 83,3 kontzentratzen den.

EAEko EKONOMIAN GIZARTE EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA SEKTOREKA
(Enpleguaren pisu erlatiboa Lurralde Historikoen arabera)


EAE




ARABA



BIZKAIA



GIPUZKOA




Enplegua galdu arren, Gizarte Ekonomiak establezimenduak gehitzen jarraitzen du, duela bi hamarkada hasitako serie historikoan bere kota handienera helduz.

GEFKetako establezimendu parkeak 2008an hasitako gorakada eta hazkunde fasean jarraitzen du. 2014an muga historikora heltzen da, 3.127 establezimenduko bolumen batekin.

Enpleguan ikusitako joerekin alderatuz, 2010-2014 bitartean establezimenduen kopurua igotzen da. 2006an puntu gorena lortu eta gero, Gizarte Ekonomiako establezimenduen kopurua 3.000etatik azpitik jaisten da hurrengo urteetan, 2010ean 2.997ko zifra batekin. Zifra hau 2012an 3.078ra irtisten da 2014an 3.127ko puntu gorenera iritsiz.

EAeko GIZARTE EKONOMIAN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA 1994-2014



2012-2014 biurteko honetako % 1,6ko hazkundera kooperatiba eremuaren (+% 1,8) eta LSMetako (% 7,8) establezimendu kopuruaren hazkunderarekin lotzen da. Aitzitik, LSAen kasuan, enpleguen jaitsiera nabarmena (-% 20,7) establezimendu kopuruaren (-% 14,2) jaitsierarekin batera doa.

2012ean GIZARTE EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2012-2014 (zifra absolutuak, % bertikalak)

	2012		2014		%Δ14/12 (1)
	z.a.	%ber.	z.a.	%ber.	
Kooperatibak	2.194	71,3	2.233	71,4	1,8
LS motakoak	884	28,7	894	28,6	1,1
LSA	268	8,7	230	7,4	-14,2
LSM	616	20,0	664	21,2	7,8
GUZTIRA	3.078	100,0	3.127	100,0	1,6

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundera, ehunekotan adierazita.

Gizarte Ekonomiaren establezimendu parkearen bilakaera positiboa eta enplegu mailaren jaitsieraren elkartzeak, dimentsio txikiko establezimendu eta enpresen agerpena nabarmentzen du.

Enplegu mailan bilakaera negatiboaren arteko joera dibergentea (-% 2,2), batetik, eta establezimendu kopuruaren hazkundera bestetik (+% 1,6), GEFKetan tamaina txikiagoko establezimendu parke baten sendotzerako joerarekin ltzen da.

Azalpena kooperatiba txikien sorreraren dinamismo handiarekin erlazionatzen da hein handi batean, erregulazio malguagoa eta enpresa txiki mota honen sustapenerako laguntza programen esparruan ezarrita. Izan ere, 2010etik dimentsio txikiko kooperatibetako kopuruan izandako hazkundera oso nabarmena da -5 enplegu baino gutxiagoko zentroak-. Hauek 2010ean 612 establezimendutik, 2012an 900 eta 2014an 943 izatera pasatzen dira. 2014an 15 enplegu baino gutxiago dituzten kooperatiba establezimenduak, kooperatiba parkearen % 55,8a irudikatzen dute.

KOOPERATIBA ESTABLEZIMENDU KOPURUAREN BILAKAERA TAMAINAREN ARABERA 2012-2014

	Establezimenduak 2012	Establezimenduak 2014	Bilakaera 2012 - 2014
5 enplegu arte	900	943	4,8
6tik 15era	303	304	0,3
16tik 50era	181	167	-7,7
51tik 100era	94	101	7,4
101etik 200era	60	63	5,0
201etik 500era	128	129	0,8
500 enplegutik gora	528	526	-0,4
GUZTIRA	2.194	2.233	1,8

Kooperatiba sektoreko joera hau hala ere ez da hain nabarmena aurreko biurtekoan, horregatik 2012-2014 bitartean enpresa establezimendu kopuruaren adierazle erlatiboa mantentzea laguntzen du (1,31). Hala ere, enpresen batez besteko pertsonal tamainaren (23,8tik 22,9ra) eta establezimenduen batez besteko tamainaren jaitsierara laguntzen du (18,1tik 17,5 enplegu establezimendu bakoitzeko).

GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINARI BURUZKO ADIERAZLEAK. 2012-2014

	2012	2014
Establezimendu/enpresa-kopurua	1,31	1,31
Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak)	23,8	22,9
Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak)	18,1	17,5

Gizarte Ekonomiako establezimenduen eta enpresen batez besteko dimentsioaren murrizketa eman arren, ekonomiako sektore hau oraindik argi eta garbi euskal enpresa-ehunaren batez bestekoa baino tamaina handiagoagatik bereizten da. Horrela, Gizarte Ekonomiako establezimenduek 17,5 enplegu duten batez beste, euskal ekonomian establezimenduek 5 enplegu gainditzen dituzte nekez (4,8).

Lerro berean, Gizarte Ekonomiako sektorean enpresa bakoitzeko enpleguaren batez bestekoa (22,9 enplegu enpresako) euskal enpresa-ehunaren batez bestekoa baino lau aldiz altuagoa da (5,3 enplegu enpresako).

**GIZARTE EKONOMIAREN ETA EAEko EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDU/ENPRESEN TAMAINA,
ENPLEGUAREN ARABERA 2014ean**

	Establezimenduen batez besteko tamaina	Enpresen batez besteko tamaina
Gizarte Ekonomia 2014	17,5	22,9
EAEko ekonomia 2014	4,8	5,3


Oharra: EAEri buruzko datuak Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik hartutakoak dira. Eustat 2014

Gizarte Ekonomiako ekonomia- eta enpresa-jarduerak, oraindik uzkurdua sintomak adierazten ditu, fakturazio zifren murrizketaren (-% 7,1) areagotzean eta balio erantsi gutxiago sortzean (-% 1,1) gauzatuta.

Kooperatiba eremuan eta LSAen artean emandako enpresa itxierak, oso pertsonal askoko enpresen desagerpenekin, enpleguaren galera ekarri dute, eta gainera, Gizarte Ekonomiaren kontu ekonomiko osoetan islatutako salmenta jaitsiera. Modu honetan, 2012-2014 biurtekoan Gizarte Ekonomiaren enpresa-martxak 2008-2010 aldian hasitako beheranzko joera luzatzen du. Krisi hasiera hau % 12,2ko fakturazio zifren jaitsierak markatuta zetorren, 2010-2012 biurtekoan % 3,3ko jaitsiera batekin moteltzen zen tasa. 2012-2014 bitartean % 7,1eraino iristen den jaitsiera erritmoa nabarmentzen da.

Bai industria sektoreak, % 7,6ko jaitsiera batekin, bai zerbitzu sektoreak (% 5,2) 2012-2014 bitartean bere salmenta zifretan jaitsierak esperimentatzen dituzte. Era berezian nabarmentzen da Gipuzkoako industria sektorean gertatutako jaitsiera (-% 10,8).

FAKTURAZIO BILAKAERA 2006 - 2015 (MILA EURO)



* Urte bakoitietan fakturatutako bolumena, enpresak aurreko urtean egindako aurreikuspenari dagokio.

2014an Gizarte Ekonomiak fakturatzen dituen 7.690,8 milioiak, 2007an heldutako 10.314,9 maximoetatik urruntzen dira. Prezio arruntetan, fakturazioaren jaitsiera bat islatzen dute, % 25,4 2007-2014 bitartean, %2 ko proportzioa da 2014ko fakturazioa 2006-2008⁵ aldiko batez bestekoarekin alderatzen bada.

⁵ 2006, 2007 eta 2008 ekitaldien batez besteko fakturazioa

Aipatu behar da, lerro lagungarri batean, 2012 Aurrerapeneko zifrek zeinu aldaketa eta fakturazioaren hazkunde bat iragartzen dutela, nahiz eta urria eta inflexio puntua izatera heldu gabe (+% 1,9). Berreskuratze prozesu honek 2015ean fakturazio zifra 7.836 milioi euro jasoko luke. Guztiarekin, fakturazioa erregistratutako mailatik azpitik geratuko litzateke, 2008tik aurrera ikusitako erorketaren ondoren. Gainera aipatu behar da, 2013ko datuek berreskuratze arin bat aurreratzen zutela, gero 2014an gauzatuko ez litzatekeena.

Fakturazioan erregistratutako jaitsiera balio erantsi gordinaren (BEG) murriztapenarekin batera dator, nahiz eta modu leunagoan. Estimaturako jaitsiera % 1,1era mugatzen da presio arruntetan, 2010-2012 biurtekoako maila askoz baxuagoan (- % 6,4). Bi elementu sektorialek BEGaren jaitsiera erlatiboa txikiagotzera laguntzen dute:

- Alde batetik, industria BEGaren murriztapen txikiagoa 2012-2014 aldian (-% 2,1a, 2010-2012 biurtekoaren % 6,1aren aurrean).
- Beste aldetik, eta positiboan, zerbitzu sektoreak bizi izandako hazkunde arina, % 0,6ko gehikuntzarekin BEGean, aurreko biurtekoan bizi izandako % 6ko jaitsiera zentzuzko moduan aldatzen duena.

Eraikuntzak ordea, jaitsiera oso garaiak mantentzen jarraitzen du, 2012-2014 bitartean -% 14,7.

BEGd-aren ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA 2012-2014 epean (Ohiko prezioak)

Sektorea	Hazkunde-tasa
Industria	%-2,1
Eraikuntza	%-14,7
Zerbitzuak	%0,6
GUZTIRA	%-1,1

Enpleguari dagokionez bizi izandako sektore dinamikak eta BEGaren berezko bilakaerak, desberdintasun sektorial argiak erakusten dituen itxurazko produktibitateko ratioetara gidatzen dute. Bestalde, enplegu industrialeko % 7,5eko jaitsiera sektoreko BEGan % 2,1eko uzkurdua baino askoz nabarmena gertatzen da. Honek, 2012-2014 biurtekoan, sektorean % 5,8ko igoerara laguntzen du, sortutako BEG ratioa 56.049 euro enplegu bakoitzetik izanik. Dinamika honek 2010-2012 aldiko beheranzko joera apurtzen du, orduan sektore honetan enplegu murrizketa prozesuari eusteko saioagatik markatua, langile bakoitzaren produktibitatea 2010eko 54.773 eurotik 2012ko 53.001 eurotara pasatzea egin zuena.

Zerbitzu sektorean ordea, hirugarren sektoreko enpleguaren % 3,7ko hazkundera, BEGaren handiagotze askoz txikiago batekin batera dator (% 0,6). Honek 2012 eta 2014 artean % 3ko urritzea ekartzen du sektorearen itxurazko produktibitatean, pertsonal murriztapenak bermatuz, 2010-2012 bitarteko % 4,7ko hazkuntzarekin kontrastatuz. 2010ean langile bakoitzeko 41.648 eurotik 2012an 43.620ra gehitu eta gero, produktibitate antzemangarria 42.308ra txikiagotzen da 2014an, hala ere 2010eko mailaren gainetik egonda. Zerbitzu sektorean, hau itxurazko produktibitate industrialaren azpitik geratzen da, 2012ko % 17,7arekin konparatuz narriadura bat islatuz.

Eraikuntzako sektorean (+% 6,7) izandako produktibitatearen hazkundera lagunduta, sektore honetako enpleguaren suntsiketak neurri handi batean baldintzatuta, analizatutako dinamika kontrajarriek Gizarte Ekonomiaren produktibitatearen hobekuntza-ildoak erakusten dute. Oro har, hau % 1,2an hobetzen da, enplegu bakoitzeko batez bestekoa 47.912 eurotan kokatu arte.

**GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO SEKTOREEN PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN
BILAKAERA 2012-2014 epean. (BEGd euroak/enplegatua. Ohiko prezioak)**

	2012	2014	Aldaketak 2012-2014
Industria	53.001	56.049	%+5,8
Eraikuntza	29.220	31.184	%+6,7
Zerbitzuak	43.620	42.308	%-3,0
GUZTIRA	47.364	47.912	%+1,2

Aurreko biurtekoan gertatzen zen moduan, 2012 eta 2014 bitartean, Gizarte Ekonomiako enpresak gainerako euskal ekonomiak baino BEG murriztapen handiagoagatik bereizten da. Honek Euskadiko BPGerako bere ekarpena murrizten du, 2010eko % 4,8tik 2014ko % 4,3ra pasatuz.

2012-2014 biurtekoan, industria sektoreko joera beherakorra adierazgarria gertatzen da, 2010eko % 10etik 2012ko % 9,9ra eta 2014ko % 9,3raino eroriz BPGk sektorialeko parte-hartzea. Hala ere, zerbitzu sektorerako ere hedatzen da zeinen EAEko bere pisua BPG sektorialean 2010eko % 3,3tik 2012ko % 3ra eta 2014 % 2,9ra txikiagotzen baita.

Oro har, euskal BPGerako Gizarte Ekonomiaren ekarpena gainbehera dator, 2010eko % 4,8tik 2012ko % 4,5era eta 2014ko % 4,3ra.

GIZARTE EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2012-2014ko KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA

	2012	2014
Industria	9,9	9,3
Eraikuntza	1,4	1,3
Zerbitzuak	3,0	2,9
GUZTIRA	4,5	4,3

Konparaziorako iturria: Kontu Ekonomikoak, 2014 Eustat


Fakturazio mailetan jaitsiera eman bada ere, , gastu-aurrekontuei eusteak lortutako emaitza orokorrak hobetzea halbidetzen du, baina krisi aurreko egoerara gerturatu gabe

2012-2014 bitartean, fakturazioaren bolumenean jaitsiera (- 7,1) gastu-aurrekontuen guztizko jaitsierarekin egokitu da, % 6,8an hazten diren amortizazioak salbu. Gastuari euste hau soldaten moderazioan sostengatu da hein handi batean (-% 5,1), emaitza kontuan ondorioak izan ditu eta etekinen hazkundeari lagundu diona. 2012-2014 bitartean % 16,2a hazten dira.

Etekin zifra hala ere 2010 eta 2012an ikusitako maila txikietan mantentzen da, beti 100 milioi eurotik beherakoak (92,2 2014an, 2012ko 79,3ren gainetik eta baita 2010eko 99,7tik azpitik). 2008ko 248,2 milioitik azpitik geratzen da eta, baina krisi aurreko oparoaldian lortutako zifren azpitik (2006ko etekinen kopuruak milioi erdia gaingiditzen zituen eta 2002 eta 2004 bitartean urteko emaitzek 300 milioi euroak gaingiditzen zituzten soberan).

Bere aldetik, sortutako cash Flow-eko zifrak % 4,7an murrizten dira. 2008tik geroztik jaitsiera jarraituen ondoren, 2014an 888,2 milioi eurotan kokatzen dira, 2002an eta 2004an erregistratutako zifren gainetik bakarrik kokatzen dira.

GIZARTE EKONOMIAREN EMAITZA EKONOMIKOEN (MOZKINAK) ETA CASH FLOWaren BILAKAERA. 2002-2014 (zifra absolutuak euro kopurua, milakoan)



Emaitzen hobekuntzak, xehetasun argiak aurkezten ditu sektorearen arabera, eta neurri handi batean posiblea da, zerbitzu-sektoreak aurreko urteetan jasandako galerei eutsi dielako.

Gizarte Ekonomiako emaitzen berreskuratze arina, ez da sektore desberdinen etekin orokorren hazkundearekin lotzen, baizik eta aurreko urteetan hirugarren sektoreak izandako galera sendoen murriztapenekin. Hau da, 2012an erregistratutako 28 milioiko galerak 2014an 7,8 milioiko galera izatera pasatzen dira.

Berez, industria sektorea bere etekin uzkurduragatik nabarmentzen da. 2012an etekin industrialak 113,4ean kokatzen ziren bitartean, 2014an 99,8 milioi eurotara murrizten dira.

Gizarte Ekonomiako Funts Propioen sektore-bilakaera asimetrikoa

Industria sektoreko etekinen jaitsieren eta zerbitzuetako galeren emaitzen martxak, nahiz eta beheranzko bide argian, funts propioen tamainan eragiten du era asimetrikoa.

Horrela, industria sektorean, funts propioak 315,4 milioi eurotan murrizten dira, etekinen jaitsieren antzeko proportzioan (-% 13). Zerbitzu sektoreak baliabide propioen hornidura hobetzen du % 7,4ean (237,9 milioi euro), hein handi batean finantza erakundeen etekinen bilakaera onekin lotzen den dinamika.

Joera sektorial desberdinak konpentsatu egiten dira, horrela Gizarte Ekonomiako funts propioak maila egonkorrean mantentzen dira, 2014an 5.628,9 milioi euroko funts propioen maila lortuz, nekez % 1,5eko murriztapenarekin.

GIZARTE EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. 2012 eta 2014 (zifra absolutuak euro kopurua milakoan, %bertikalak)

	2012		2014	
	Euroak	%ber.	Euroak	%ber.
Lehen sektorea	6.219.052	0,1	7.002.011	0,1
Industria	2.428.715.928	42,5	2.113.335.260	37,5
Eraikuntza	50.949.517	0,9	43.177.268	0,8
Zerbitzuak	3.227.551.120	56,5	3.465.415.915	61,6
GUZTIRA	5.713.435.617	100,0	5.628.930.454	100,0

Enpleguaren Jaitsierak neurri handiagoan eraginako lurraldea bada ere, ekonomia jarduerari erreparatuta, Gipuzkoak etekinen eta sortutako BEG-aren zenbateko handienak sortzen ditu.

Gipuzkoako Gizarte Ekonomiaren enpleguaren protagonismo handiena, sortutako fakturazioan ere nabaritzen da, hortaz gipuzkako lurraldeak fakturazio osoaren % 52 biltzen du 3.978 milioi eurokin, hein handi batean sektorialki industria eremura lotutako fakturazioa (% 68).

Gipuzkoa lortzen dituen etekin zifrengatik ere nabarmentzen da, guztira 137,8 milioi eurokin – zuzenki industriarekin lotutako % 94 bat – baita bere BEGko zifrengatik ere, 1.399 milioi euro. % 53,3ko ekarpenarekin, zifra honek Gipuzkoa Gizarte Ekonomiako BEG sortzaile nagusi bezala kokatzen du 2014an.

Hala ere, kooperatiba arabarrak dira euskal gizarte eremuan produktibitate handiena dutela ematen duten enpresa unitateak (55.771 euro lanpostu bakoitzeko). Gipuzkoar kooperatibak lanpostu bakoitzeko 52.869 eurotan kokatzen dira, Bizkaian kooperatiba enplegu bakoitzeko 44.139 eurotara jaisten den ratioa.


Barneko fakturazioan jaitsiera jasan dute enpresa esportatzaileek, esportazioen bitartez konpentsatu ezin dena

Irekitze maila handitzen da kanporantz.

Fakturazioak eta enpleguek aurka dituzten zailtasunak ego narren, Gizarte Ekonomiako enpresa-ehunaren aldetik kanpoko merkatuetarako zabaltzea apustu argi bat izaten jarraitzen dute. 2012-2014 bitartean kooperatiben eta sozietate laborelek eratutako ehun emankorrek kanporako goi mailako irekitze bat erakusten du berriro, fakturazio mailatan esportazioen pisu hazkorrak irudikatzen duen moduan. 2014an esportazioak fakturazioaren % 34,5a suposatzen dute, 1994an hasitako denboraldi seriean lortutako maila altuena.


Apustu hau industria sektorearekin lotzen da historikoki, non fakturazio industrialaren gaineko esportazioen proportzioa % 62,8raino igotzen baita; zerbitzuetan, berriz, ratioa sinbolikoa da (% 0,7).

KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE MAILAREN BILAKAERA (esportazioen bolumena fakturazio osoaren gainean). 1994-2014



2012-2014 bitartean kanpoko merkatuetarako irekitze hedatze-erritmoa geldotu egiten da. 2010-2012 biurtekoari dagokionez, non esportazioen pisua portzentajezko 6 puntuetan areagotzen baitzen, 2,2 portzentajezko puntuko igoera neurrizkoagoa da.

Errealitate hau establezimendu esportatzaileak ez direnen dinamikarekin lotzen da zalantzarik gabe. Gainera, esportatzaile jarduera dutenen zentro produktiboen kanporako irekitze maila zabaltzen da. 2014an, fakturazioaren % 65,2a esportazioekin lotzen zen, 2012ko % 59,7aren gainetik 5,5 portzentajezko puntutik gainetik, 2004tik ikusitako aurreratze altuena.

ESPORTAZIOEK ENPRESA ESORTATZAILEEN FAKTURAZIO OSOAREN GANEAN DUTEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA.2004 - 2014


Hala ere, 2010-2012 aldian emandako kanpoko fakturazioaren goranzkoa apurtzen da 2012-2014 aldian; hau Europatik kanpo fakturazioen jaitsierara egozgarri daiteke.

Itxurazko dinamika positibo honek, azken bi urteetan arazo nabarmena ezkututzen du: kanpoko fakturazioa baldintza errealetan handitzea lortzen ez duten enpresa esportatzaile batzuen arteko barneko fakturazioaren jaitsiera deigarria.

2012-2014 biurteko datuek, GEFKen kanpo harremanen dimentsio honetako dinamika kezkarria erakusten dute. Zentzu honetan, aipatu behar da, **enpresa esportatzaileen fakturazioaren jaitsiera (% 9,1) Estatu eta/edo EAE eremuan (-% 4,9) salmenta emaitzen kontua elikatzen eta esportatzen ez duten enpresen aldetik bizi izandako jaitsiera baino ia bikoitza dela.**

Profil esportatzaileko enpresei egozteko moduko efektu hau, etxe-merkatuko salmenten jaitsierak azaltzen du batez ere (-% 21,5), konpentsatuta ikusten ez den kanpoko salmentetako dinamismo handiagoen bidez. 2012-2014 biurtekoan esportazioak globalki % 0,7 txikiagotzen dira.

2010-2012 biurtekoan ikusitakoarekin aldageta nabarmena, aldi horretan esportazioen hazkundeak (+% 18,8) barne merkatuko salmenta galera (-% 5,5) konpentsatzen zuelako. Hark fakturazioan % 7,6ko hazkundera baimentzen zuen 2012-2014 aldian enpresa esportatzaileek erregistratutako % 9,1eko jaitsieraren aurrean.

BARNE SALMENTEN ETA KANPO SALMENTEN BILAKAERA 2012 – 2014

	2012	2014	%Δ14/12	z.a. Δ14/12
Fakturazio osoa	8.283.006.345	7.690.772.395	-7,1	-592.233.950
Esportatzen ez dutenen fakturazioa	3.806.223.169	3.621.137.910	-4,9	-185.085.259
Esportatzaileen fakturazioa	4.476.783.176	4.069.634.485	-9,1	-407.148.691
a)Barne-salmentak	1.803.527.961	1.416.163.881	-21,5	-387.364.080
b)Kanpo-salmentak: Esportazioak	2.673.255.215	2.653.470.604	-0,7	-19.784.611
b.1. Europarako esportazioak	1.588.386.617	1.695.499.875	6,7	107.113.258
b.2. Esportazioak gainerako herrialdeetara	1.084.868.598	957.970.729	-11,7	-126.897.869

Enpresa esportatzaileen bilakaeraren faktore argitzaile bat, 2012 eta 2014 bitartean, Munduko esportazioen jaitsiera deigarria da, Europa kanpoan hain zuzen, 2008-2012 bitartean, merkatu horietaranzko salmentak % 132,9tan handitu ziren, baina salmenta horiek % 11,7 erortzen dira 2012-2014 bitartean.

Harekin apurtzen da 2010-2012 bitartean enpresa esportatzaileen erabateko fakturazioaren gorakada baimentzen zuen mekanismoa. Nahiz eta Europako merkatua gorantz joatea lortu, 2012 eta 2014 bitartean bere hobekuntzak munduko gainerako merkatuetan salmenta galera konpentsatzea nekez lortzen du. Eta salmenta jaitsieraren areagotzea barneko merkatuan mugatzea nekez lortzen du.

Europa kanpoko fakturazio galera, Asiako eta Latinoamerikako merkatuekin lotzen da.

2014an, kanpoko fakturazioko 2.653,5 milioi euro neurri handi batean Europar merkatuan kontzentratzen dira (esportazioen % 63,9), GEFKetako enpresa esportatzaileentzat hazten jarraitzen duten merkatu batzuk. Hala ere, merkatu honetan ere hazkundearen geldotze bat egiaztatzen da. Modu honetan, 2010-2012 biurteko % 13,7ko salmenta hazkundearen aurrean, 2012-2014 bitartean hazkundera % 6,7koa da.

Bestalde, aipatu den moduan, Europa kanpoko esportazioak, zeintzuk 2012-2014 bitartean bizitasun nabarmenez hazten ziren (% 27,1), geldiarazita ikusten dira sortu berri diren ekonomien hazkundearen geldialdiarekin. 2012-2014 bitartean munduko gainerako esportazioak % 11,7 erortzen dira.

Europa kanpoko merkatuen dinamiken analisiak, hurrengo joerak erakusten ditu eremu geografikoaren arabera:

- Esportazio latinoamerikarren jaitsiera garrantzitsua egiaztatzen da. 2012-2014 bitartean % 27,8 murrizten dira, 2008-2010 eta 2010-2012 biurtekoetan % 25 baino gehiagoko erritmoan hazi eta gero. Azken urteetan, GEFKen kanpoko fakturaziorako esportazio latinoamerikarren ekarpena hiru puntutan gutxitzen da. 213 milioi euroekin, kanpoko fakturazioaren % 8 hartzen dute 2014an, esportazio estatubatuarrak 2014an duten ekarpenen antzeko ehunekoa (% 7,6).

- Europaren ondoren, Asia zehazten da fakturatutako bolumenari dagokionez bigarren lekuan. 2012-2014 bitartean, kontinente horretarako esportazioa % 9an txikiagotzen da. 2008-2010 bitartean izandako % 95,5eko igoera ikusgarriaren ondoren, joera aldaketa 2010-2012 bitarteko % 19ko gehikuntza adierazgarriak ezkutatuta uzten du. Izan arren, aurrera saltoak deigarria izaten jarraitzen du: 2008an esportazioen 189,3 milioi euro ekartzen zituen bitartean, 2014an oraindik, jaitsiera berria izan arren, 400,9 milioi eurotara iristen dira. GEFKen esportazioen % 15,1 Asiako kontinentera iristen da.

ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ZONAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2008, 2010, 2012 y 2014

	z.a. 2008	z.a. 2010	z.a. 2012	z.a. 2014	%Δ10/08	%Δ12/10	%Δ14/12
Europa	1.959.861.909	1.397.054.639	1.588.386.617	1.695.499.875	-28,70	13,7	6,7
Asia	189.287.966	370.036.555	440.345.111	400.880.770	95,50	19,0	-9,0
AEB	24.409.658	148.965.042	193.840.989	202.273.272	510,30	30,1	4,4
Hegoaldeko Amerika	166.542.425	210.994.736	295.090.191	212.963.623	26,70	39,9	-27,8
Beste batzuk	85.507.342	123.433.888	155.592.307	141.853.065	44,40	26,1	-8,8
GUZTIRA	2.425.609.299	2.250.484.862	2.673.255.215	2.653.470.604	-7,20	18,8	-0,7


- Europatik kanpo, 2012-2014 bitartean hedapeneko salmenta bakarrak Estatu Batuetara iristen direnak dira, Europako herrietako % 6,7 gehiegikerian urruntzen ez den % 4,4aren gehikuntzarekin. Gainerako mundura salmentak, % 8,8an erortzen dira. Estatu Batuek GEFKen esportazioen % 7,6 erakartzen dute 2014an, gainerakoei % 5,3a egotziz.

Asia eta Hego Amerikako esportazioen joera aldaketa deigarria da bereziki GEFKen kanpoko fakturazioaren barruan bere pisu erlatiboaren analisiari dagokionez. 2008an bere gehitutako parte hartzea % 14,7an kokatuta, proportzioa % 25,8ra pasatzen zen 2010ean eta 2012ko % 27,5eko maximora. 2014an ikusitako jaitsierak partaidetza % 23,1ean kokatzen du, 2012 eta 2014ko zifren azpitik beraz.

Esportazioei dagokienez, Gipuzkoak lidergo toki argian jarraitzen du, kanpoko sektore sozialen taldeak 2014an egindako salmenten % 68,1a erakarritz.

Eskualde dimentsioan, fakturazio mailetako esportazioen pisu erlatibo handiena Deba Goierna (% 61,1), Tolosa – Goierri (% 54,8) eta Deba behea (%46), eskualde gipuzkoarretan dago, Bizkaiko Bizkai-kostan bezala (% 53). Lau eskualde hauek Euskal Gizarte Ekonomia osoaren % 34,5a baino gehiagoko esportazio ratio batzuk erregistratzen dituzte.

**FAKTURAZIOAREN GAIN GIZARTE EKONOMIAREN ESORTAZIOENESKUALDEKO PISU ERLATIBOA
2014 (% fakturazioaren gain)**



Barneko merkatuko salmenta jaitsierak, nolanahi ere, EAEko GEFKen berrskuratzeko muga nagusia izaten jarraitzen du. Alderdi honetan, 2012-2014 biurtekoaren dinamika 2008-2010 aldikoa bezain kritikoa gertatzen da.

Gizarte Ekonomiaren kanpoan irekitzeko joera izatekotan barneko fakturazio datuekin argitu behar da, beste merkatu batzuetaranzko irteeraren irudi positiboa eskaintzeko joera duten zeinu negatiboko datu. Zentzu honetan, EAEn GEFKen zailtasunak azaltzeko datu gakoa, barneko merkatuan fakturazioaren joera negatiboa da.

Esportatzaileak ez diren enpresen kasuan, 2012-2014 bitartean joera negatiboa luzatzen da, fakturazioaren % 4,9ko jaitsiera batekin. Zifra garaia da, 2010-2012ko % 13,6 eta 2008-2010 biurtekoaren -% 8,0ari buruz salmenten murriztapen erritmoen beheranzko doikuntza eman arren. Orokorrean, esportatzaileak ez diren establezimenduek 2008-2014 bitartean fakturazioaren % 24,3 galtzen dute.

Krisia enpresa esportatzaileetan gogorragoa da, 2008-2014 bitartean barneko fakturazioaren % 44,4ko jaitsiera batekin. 2010-2012an ikusitakoa ez bezala, esportatzaileak ez direnenak baino jaitsiera mugatuagoarekin (-% 5,5 esportatzaileen artean, -% 13,6 esportatzaileak ez direnak), 2012-2014 biurtekoan berriro ere errepikatzen da 2008-2010ean ikusitakoa enpresa - % 4,9aren aurrean 2012-2014 artean). Lerro honetan, 2012-2014 biurtekoan enpresa esportatzaileek barne fakturazioan duten % 20 baino gehiagoko jaitsiera ez da urruntzen 2008-2010 aldian izandako % 25etik.

